



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

Miren Ilarregui Belarra
Ainhoa Bereau Altxu
Arkaitz Mindegia Baleztena
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Jose Maria Alzuri Vertiz

2024ko uztailaren 22an, 19:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak akta aurkeztu ondoren, bozkatzera deitu du, eta Udalbatzak hurrengoa erabaki du:

Alde 6

Abstentzio 1

1.- 2024ko maiatzaren 30ko akta onartzea.

2. PAMIF ONESPENA.

Babes Zibilari eta larrialdiei laguntzeari buruzko 8/2005 foru legea, uztailaren 1ko 13.artikuluaren ezartzen duenaren arabera eta 2022 bertan ezarritako basosuteek eragindako larrialdien babes zibileko plan bereziaren berrikuspenean Ituren udako arriskuagatik, arrisku handiko eremutzat identifikatu da.

Horregaitik, Iturengo udalak Lur Geroa enpresari Plana idaztea eskatu zion eta Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuaren aldeko txostena jaso zuen.

Udalburuak gaia azaldu ondoren, bozkatzera deitu du, eta **Udalbatzak hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1. Iturengo PAMIFa onartzen da.

2. Babes Zibileko Zerbitzuari jakinarazi, plana homologatu dezaten eskatuz.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

3.- HITZARMEN URBANISTIKOA 2.POLIGONOKO 285 LURZATIA

Mikel Campo Echetepelecu jaunak 2.poligonoko 285 lurzatian dagoen etxean irisgarritasun beharra konpontzeko eskaera egin zuen eta udal arkitektuaren txostena azaldu ondoren Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1. 2.poligonoko 285 lurzatian Hitzarmen urbanistikoa hasiera batez onartzea.
2. **Akordioa erakustaldi publikoan jartzea 20 egunez, NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.**
3. **Alkateari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.**
4. **Akordioa interesatuari jakinaraztea.**

4.-KOMUNALEAN EGURTEGIA EGITEKO BAIMENA EMATEKO BALDINTZA AGIRIA: HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak komunalaren okupazioa (egurtegia eraiki eta erabiltzeko) arautuko duten pleguak aurkeztu ditu. Pleguak azaldu ondoren Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- 1. poligonoko 168. lurzatian egurtegia egiteko komunalen okupazioa arautuko duten pleguak onartzea:

"ITURENGO KATASTROKO 1. POLIGONOKO 168. PARTZELAN, PIAKO BIZKARRAKO PARAJEAN, EGURTEGI IREKIAREKIN HERRI-LURSAILAREN OKUPAZIOA ARAUTZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA.

LEHENENGOA.- Iturengo Katastroko 1. poligonoko 168. partzelan, "Piako Bizkarreko" parajea, 18 meto karratuko herri-lursaila okupatzea da agiri honen xedea, egurtegia eraikitzeko, egurra idorpean pilatu ahal izateko. Idorpea, lau poste eta tailatu batek osatuko lukete (egurtegi irekia).

Aldez aurretik, Iturengo Udalak dagokion espedientea izapidetuko du, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 172. artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Itziar Bazterrica Arretxea andreak egurtegia eraikitzeko obren baimena lortzeko tramitea hasi du.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)

31745

Lur urbanizaezinean eraikiko da, horregatik urbanizagarriak ez diren lurzoruen araudiak jarritakoa bete beharko da. Planteaturiko jarduera baimendu daitekeen jarduera denez, Udalaren lizentzia jasotzearekin aski da.

HIRUGARRENA.- Egurtegiaren azalerak hiri lurretako 18 metro karratu okupatuko lituzke Iturengo Katastroko 1. poligonoko 168. partzelan, "Piako Bizkarreko" parajea.

Herri-lurraren okupazioa aprobetxamendu berezi gisa baimenduko da, eta ematen diren baldintzak betetzen diren bitartean mantenduko da; beraz, deskribatutako erabileretarako soilik ematen da, eta 20 urteko iraupena izango du, 10 urteko epeetan luzatu ahal izango dena.

LAUGARRENA.- Sustatzaileak lursaila okupatzeagatik ordaindu beharreko urteko kanona 30 eurokoa izango da (1,666 €/m²), gehi BEZa; zenbateko hori urtero eguneratuko da, Estatuan KPlak duen igoeraren arabera.

BOSGARRENA.- Iturengo Udalaren obra-baimen eta -lizentzia guztiak lortu ondoren, sustatzaileak okupatutako lursaila utziko du obra egin aurretik zituen baldintza berberetan.

SEIGARRENA.- Sustatzaileak ezin izango du agiri honen xede diren lursailak baino gehiago okupatu.

ZAZPIGARRENA.- Sustatzailea izango da eraikitako egurtegiak jasan dezakeen edozein matxurak okupatutako lursailean eragin ditzakeen kalteen erantzule, bai eta horiek konpontzearen erantzule ere.

ZORTZIGARRENA.- Lehengoratzeko-klausula. Okupazioa eragin duten helburuak desagertzen badira edo betetzen ez badira, iraungitzat joko da okupaziorako baimena, eta okupatutako lurak ez du kargarik izango.

BEDERATZIGARRENA.- Okupazio hori edo formalizatzen duen kontratua betearazteari eta interpretatzeari dagokionez, bi alderdiak Iruñeko epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira berariaz."

2.- Akordioa erakustaldi publikoan jartzea 15 egunez, NAO-n argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

3.- Alegaziorik ez balego, behin betikoa izango da eta dagokion kanona ordaindu beharko du.

4.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

5.- ESKAERAK.

5.1.- Blanca Urroz Garralda andreak udal arkitektuari kontsulta egin zion 2.poligonoko 95. lurzatiari buruz. Ekainaren 17ko txostena ikusirik Urroz andreak udalean eskaera bat jarri zuen; Udal arkitektuaren txostenan agertzen da regataren gainean eraikitako eraikuntza, hasierako onespina duen udal-planean, ordenazio kanpo agertzen dela. Urroz andreak eraikuntza udal plan berrian egotea eskatzen du. 2003ko urtarrilaren 17an osoko bilkuran Barbeneko etxeari atxikia dagoen eraikina etxebizitza bezala konpontzeko lizentzia onartu zen, baimen guztiak lortuz. Udalbatzak gaia aztertu ondoren, **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Barbenea etxeari atxikituta dagoen eraikina Katastron etxebizitza bezala aldatzea.

2.- Barbenea etxeari atxikituta dagoen eraikina Udal plan berrian antolamendu barruan egotea.

3.- Akordioa interesatuari, katastroari eta udal arkitektuari jakinaraztea.

5.2 Julen Aranburu Mitxelena jaunak 382/2024sarreran zenbakia duen eskaera bat aurkeztu zuen udalan, Mitxeleneko bordan terraza bat egiteko, 3.poligonoko 132 lurzatian. 2024ko uztailaren 2ko udal arkitektuaren txostenaren arabera Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Aginduen 111 artikuluen arabera, bideak 3 metroko "servidumbre" zatia dute, ezer eraiki ezin den tokia izanik. Baita ere aipatzen du eraikinaren estruktura eta konfigurazio arkitektonikoan eragina duenez, arkitektu batek bisatuta dagoen proiektu bat aurkeztu beharko luke. 455/2024 sarrera zenbakia duen eskaera bat aurkeztu du aranburu jaunak, terraza fatxada osoko izatea nahi duela esanez. Udalbatzak gaia aztertu ondoren, **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6

Abstentzio 1

1.- Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Agindua eta udal arkitektuaren txostenean aipatutako kontutan izanik, arkitektuaren proiektu bat aurkeztu behar du bere eskaera zehaztuz.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

5.3- Sabino Bereau Baleztena jaunak bere etxe ondoan dagoen lurzati komunalaren aprobetxamendua eskatzen du, 2.poligonoko 349 lurzatia, garbitu eta txukuna mantenduko duela esanez. Udalbatzak gaia aztertu ondoren, **hurrengoa erabaki du:**

Alde 6
Abstentzio 1

1.-Eskaera onartzen da. Lurzati komunala arautzen diren pliegoak egingo dira hurrengo bileran onartzeko.

2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

6.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (48/2024 ebazpenetik 64/204 ebazpenera) eta Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

7.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: Ingurumeneko departamenduko Abere ekoizpenaren atalaren ebazpenak abeltzaintza esplotazioan bajak emanez: Nekane Ariztegui Sansiñena- zaldiak; Fermin Ariztegui Sansiñena- ardiak; Maria Jesus Elizagoyen Echegaray- behiak; Ion Joseba Ariztegui Oyaregui- txerriak; Maria Isabel Macuso Damboriena- txerria; Ganados Mendiburu S.L-behiak; Ander Erasun San Sebastian txerriak eta zaldiak-----; 218E/2024 Lurralde antolamenduaren zuzendari nagusiaren ebazpena, Saldias, Beintza-Labaien, Ituren eta Zubietako herrietan zuntz optika hedatzeko baimena emanez----; Kantauriko konfederazio hidrografikoaren txostena Aioneko iturriari buruzkoa---;Nafarroako berdintasunerako institutuaren idatzia LGTBI kanpaina azalduz---: Nafarroako berdintasunerako institutuaren idatzia Sexu Indarkerientzako Arreta Integraleko Zentroaren kanpaina azalduz---; Geserlocalen txostena zerga zorraren preskrizioari buruzkoa---; Ingurumen Osasunaren Atalaren txostena Iturengo uraren egoerari buruzkoa.

8.- GALDE-ESKEAK.

Ez dago galde-eskerik.

Eta bertzerik ezean, 20:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

